

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### GAUBEAKO UDALA

#### Behin betiko onartzea jarduera ekonomikoen gaineko zerga arautzen duen ordenantza

Jendaurreko aldian inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez eta bat etorritik apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 49. artikuluan ezarritakoarekin, automatikoki behin betiko bihurtzen da udalbatzaren 2017ko ekainaren 23ko erabakia, hasierako onarpena eman ziona jarduera ekonomikoen zerga arautzen duen udal ordenantzari, zeinaren testu osoa argitaratzen baita guztiek jakin dezaten, aipatutako legeak 70.2 artikuluan xedatutakoa betez.

#### Jarduera ekonomikoen gaineko zerga arautzen duen ordenantza

##### I. Xedapen orokorrak

##### 1. artikulua

Udal honek, bat etorritik uztailearen 19ko 41/1989 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituenak, eta uztailearen 19ko 43/1989 Foru Arauak ezartzen dutenarekin, jarduera ekonomikoen gaineko zerga eskatzen du ordenantza honen arabera, zeinaren zati baita aplikatzeko tarifa eta bilketa aldia dituen eranskina.

##### 2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

##### II. Zerga gaia

##### 3. artikulua

Zerga gaia da enpresa, lanbide edo arte jardueretan aritzea udalerrian, jarduera horiek lokal jakin batean egin edo ez, eta zergaren tarifetan zehaztuta egon edo ez.

Zerga honen ondorioetarako, enpresa jarduerak izango dira beste jarduera baten mendeko ez den abeltzaintza, meatzeak, industria, merkataritza eta zerbitzuak. Horien artean ez dira sartzen nekazaritza, beste jarduera baten mendeko abeltzaintza, basogintza eta arrantza; beraz, horiek ez dira zerga honen gai.

Aurreko paragrafoan ezartzen denaren ondorioetarako, abeltzaintza lokabetzat joko dira kasu hauetakoren batean dauden abereak:

- a) Abeltzainak abereak larratzen diren lurak ez erabiltzea nekazaritzarako ez basogintzarako.
- b) Landa finketatik kanpo ukuiluratutakoak.
- c) Transhumantzia dabilena.
- d) Gehienbat hazten ari den finkakoak ez diren pentsuez elikatzen den aberea.

##### 4. artikulua

1. Jarduera bat enpresa, lanbide edo arte jardueratzat joko da hura egiten duenak bere kabuz antolatu behar ditueneko ekoizteko baliabideak eta giza baliabideak, edo bietako bat, ondasun edo zerbitzuen ekoizpen edo banaketan jarduteko.

2. Zergapetutako jardueren edukia zergaren tarifetan zehaztuko da.

**5. artikulua**

Zergapeko jarduerak egiten direla frogatzeko zuzenbidean onar daitekeen edozein bitarteko erabil daiteke, batik bat merkataritzako kodeko 3. artikuluan ezartzen direnak.

**6. artikulua**

Jarduera hauek ez daude zergapean:

1. Nekazaritzakoak, mendeko abeltzaintzakoak, basogintzakoak eta arrantzakoak.
2. Enpresen aktibo finkoan sartzen diren ondasunak besterentzea, baldin ondasun horiek, eskualdatu diren data baino bi urte lehenagotik, gutxienez, ibilgetu izaeraz agertu badira inbentarioan, eta, orobat, saltzailearen erabilera partikular eta pribatuko ondasunen salmenta, baldin eta ondasun horiek lehen adierazitako epe horretan bertan erabili baditu.
3. Lan pertsonalen edo zerbitzu profesionalen ordainez jasotzen diren produktuen salmenta.
4. Establezimenduaren apaindurarako baino ez diren artikulua erakustea. Aldiz, bezeroei oparitzeko diren gauzak erakustea zergapean dago.
5. Txikizkako salmentan, egintza bakarra gauzatzea eta eragiketa bakana izatea.

**III. Salbuespenak****7. artikulua**

1. Zergaren kargatik salbuetsita daude:

a) Estatuak, Euskal Autonomia Erkidegoa, Arabako Foru Aldundia eta udal erakundeak, eta Estatuaren organismo autonomoak eta lurralde administrazio horietako antzeko izaerako zuzenbide publikoko entitateak.

b) Zerga honen lehenengo bi zergaldietan jarduera bati ekiten dioten subjektu pasiboak.

Honen ondorioetarako, salbuespena ez da aplikatzen lehen beste titulartasun batekin egin den jarduera bati ekiten bazaio, eta halakotzat hartuko dira bategiteak, zatikatzeak eta jarduera arloak eranstea.

c) Eragiketetan 1.000.000 eurotik beherako bolumena duten subjektu pasiboak.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunei dagokienez, establezimendu iraunkor bidez aritzen direnentzat baino ez da izango salbuespena, baldin eta eragiketetan 1.000.000 eurotik beherako bolumena badute.

Edonola ere, salbuespen hori aplikatzeko, ezinbestekoa izango da subjektu pasiboek ez izatea, zuzenean edo zeharka, idatz zati honetan jasotzen den eragiketa-bolumenaren baldintza betetzen ez duten enpresen ehuneko 25 baino gehiagoko partaidetzarik, non eta ez diren arrisku kapitaleko sozietate edo funtsak edo enpresak sustatzeko sozietateak, hain zuzen ere abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 77. artikuluan zehazten dituenak, baldin eta partaidetza sozietateen xedea betetzearen ondorio bada.

Idatz zati honetan arautzen den salbuespena aplikatzeko erregela hauek hartu behar dira kontuan:

1º. Eragiketen bolumena abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 5. idatz zatian ezartzen duenaren arabera kalkulatu da.

2º. Sozietateen gaineko zergaren, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboen eragiketen bolumena hauxe izango da: aitortpena zerga zorra sortu den urtearen aurreko urtean aurkeztu beharreko zergaldikoa.

Zergen foru arau orokorrak 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatzen dituen sozietate zibilen eta entitateen eragiketen bolumena izango da zerga honen ondoriozko zorra sortzen den urtearen azken aurreko urtekoa.

Zergaldi hori urtea baino laburragoa bada, eragiketen bolumena urtekoratu egingo da.

3°. Subjektu pasiboaren eragiketen zenbatekoa kalkulatzeko hark egindako jarduera ekonomikoaren multzoa hartuko da kontuan.

Erakundea, merkataritza kodeko 42. artikuluari jarraikiz, sozietate talde bateko kidea bada, aurrean adierazitako magnitudeak taldeko entitate guztienak izango dira. Irizpide hori aplikatuko da, era berean, pertsona fisiko bat, bere kabuz edota beste pertsona fisiko batzuekin batera, beste entitate batzuekin harremanetan dagoenean (zuzeneko nahiz zeharkako ahaidetasunez, odol ahaidetasunez edo kidetasunez, bigarren mailara arte), merkataritza kodeko 42. artikuluan zehazten diren kasuetako batean.

Aurreko paragrafoan xedatzen denari dagokionez, merkataritza kodeko 42. artikuluko kasuak abenduaren 20ko 1815/1991 Errege Dekretuak onartzen dituen urteko kontu bateratuak formulatzeko arauetako lehenengo kapituluko 1. atalean ezarritakoak direla ulertuko da.

4°. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunen kasuan, Espainian dauden establezimendu iraunkorren multzoari egotz dakiokkeen eragiketa bolumena hartuko da kontuan.

d) Gizarte Segurantzaren, mutualitateak eta montepioak kudeatzen dituzten erakundeak, indarrean dagoen legediarekin bat etorri eratutakoak.

e) Ikerkuntza erakunde publikoak eta irakaskuntza establezimenduak (maila guztietan), Estatuko, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Arabako Foru Aldundiko udal erakundeetako funtsekin osoki ordainduak; ongintzakotzat aitortutako edo erabilgarritasun publikoa duten fundazioen kontura ere ordainduak; eta maila guztietako irakaskuntza establezimenduak, mozkinik ateratzeko asmorik gabe hezkuntza itunean daudenak (nahiz eta ikasleei liburuak edota mahairako artikulua eman, edota mantenu erdiko zein barnetegi zerbitzuak eskaini), nahiz eta salbuespen gisa, establezimendu berean saldu irakaskuntza horretara zuzendutako tailerretako produktuak; betiere, salmentaren zenbatekoa (partikularentzako edo hirugarren pertsonentzako erabilgarritasunik gabea) eskusiboki lehengaiak eskuratzeko edo establezimendua sostengatzeko bideratzen bada.

f) Ezindu fisiko, psikiko eta sentsorialen elkarte eta fundazioak, irabazteko asmorik gabeak, ezinduekin egiten dituzten pedagogia, zientzia, asistentzia eta enplegu jarduerengatik, xede izanik haien irakaskuntza, heziketa, birgaitzea eta zaintza, nahiz eta zentroan bertan saldu helburu horietarako egiten diren tailerretako produktuak, baldin eta salmentaren zenbatekoa, partikularentzako edo hirugarren pertsonentzako erabilgarritasunik gabea, bideratzen bada soil-soilik lehengaiak eskuratzera edo zentroa sostengatzera.

g) Gurutze Gorria eta arauz zehazten diren antzeko beste entitate batzuk.

h) Nazioarteko ituna edo hitzarmen dela bide salbuespena aplikatu dakiekeen subjektu pasiboak.

i) Irabazteko xederik gabeko entitateak, uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauak, irabazteko xederik gabeko entitateen zerga araubidearen eta mezenasgorako zerga pizgarrienak, ezartzen duenarekin bat etorri eta bertako baldintzak betetz gero.

2. Aurreko idatz zatiko a), d), g) eta h) letretan aipatzen diren subjektu pasiboek ez dute zertan aurkeztu zergaren matrikularen alta aitortpena.

3. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak zehaztuko du aurreko 1. idatz zatiko c) lettran zehaztutako salbuespena aplikatzen den kasuetako zeinetan eskatuko den Arabako Foru Aldundiari komunikazioa bidaltzeko, hain zuzen ere letra horretan salbuespena aplikatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen direla adierazten duen komunikazioa.

Horretarako, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezarriko du komunikazio horretan zer azaldu behar den, noiz bidali behar den nola aurkeztu behar den, eta zer kasutan aurkeztu behar den bide telematikoz.

Aurreko 1. idatz zatiko c) letran zehazten den salbuespenean eragina eduki dezaketen aldakuntzak direla eta, zerga ordenantza honetako 11. artikuluko 2. idatz zatiko hirugarren paragrafoan ezartzen dena aplikatuko da.

4. Artikulu honetako 1. idatz zatiko e) eta f) letretan xedatutako salbuespenak eskaera bidezkoak izango dira, eta alde batek eskatuta emango dira, bidezko denean.

#### IV. Subjektu pasiboak

##### 8. artikulua

Zerga honen subjektu pasiboak dira bai pertsona fisikoak eta juridikoak, bai Arabako zergen foru arau orokorraren 35. artikuluko 3. paragrafoak aipatzen dituen erakundeak, udalerrian zerga gaia eratzen duten jardueretako edozein egiten badute.

##### 9. artikulua

Zerga kuota izango da ateratzen dena aplikatuz indarrean dauden zergaren tarifak, uztaileen 23ko 573/1991 Araugintzako Foru Dekretuak onartuak, eta udalak erabakitako koefizienteak, indizea eta hobariak, ordenantza honen eranskinean arautuak.

#### V. Zergaldia eta sortzapena

##### 10. artikulua

1. Zergaldia urte naturala da; salbuespena: alta aitortpenetan zergaldia jarduerari ekin zaionetik egutegiko urtea amaitu arte da, artikulu honetako 3. zenbakian xedatzen dena gorabehera.

2. Zerga sortuko da zergaldiaren lehen egunean eta kuotak murriztezinak izango dira, salbu eta alta aitortpenen kasuetan, jarduera hasten deneko eguna urtearekin bat ez datorrenean; horrelakoetan, jarduera hasten den egunetik abenduaren 31ra arteko egunen kopuruaren arabera proportzionalki kalkulatu da.

3. Baja aitortpenetan zergaldia urtarrilaren lehenengotik baja aitortpena aurkezten den egunera arte izango da. Horrelakoetan, zergaldiaren lehen egunean sortuko da zerga eta kuota urtarrilaren batetik baja aitortpenaren egunera arte dauden hilen proportzioaren arabera kalkulatu da.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren hilen kopurua kalkulatzeko, hil osotzat zenbatuko da baja aitortpena aurkezten den hila.

Kasu honetan ez da aplikatuko zenbaki honetan xedatzen dena: jarduera hasi den egunetik baja aitortpena egin arte 12 hilabete pasatu ez badira. Hala denean, baja eguna baja aitortpena aurkezten den urteko abenduaren 31 izango da.

4. Ikuskizunei dagokienez, kuotak jarduketa bakartuen arabera ezarri badira, sortzapena haietariko bakoitza egitean gertatuko da, eta horiei dagozkien aitortpenak arau bidez ezarri den bezala aurkeztu beharko dira.

#### VI. Kudeaketa

##### 11. artikulua

1. Zerga matrikula oinarritzat hartuta kudeatzen da. Matrikula hori urtero eratuko da, eta bertan sartuko dira jarduera ekonomikoen, subjektu pasiboen, zerga zorren, eta, hala badagokio, foru errekariguen zerrendak. Matrikula jendearen eskura egongo da.

2. Subjektu pasiboek beren alta aitortpen guztiak aurkeztu behar dituzte eta, ordenantza honetako 11.1 artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik, matrikulan sartzeko behar diren datu

guztiak adierazi beharko dituzte arauz ezartzen den epealdiaren barruan. Ondoren administrazio eskudunak bidezko likidazioa egingo du eta subjektu pasiboari jakinaraziko dio, eta gero hark bidezko diru kopurua sartu beharko du. Halaber, subjektu pasiboek zergapeko jardueretan aritzean gertatu eta zerga honen ordainketan eragina duten aldaketa fisiko, ekonomiko eta juridikoen berri eman beharko dute, arau bidez ezartzen diren epealdietan eta zehazten den bezala. Hori dela eta, jakinarazpenetan nahitaez adierazi beharko da jarduera egiten den higiezinaren katastroko erreferentzia.

Zehazki, zerga ordenantza honetako 7. artikuluko 1. idatz zatiko c) letran ezartzen den salbuespena aplikatu ezin zaien subjektu pasiboek eragiketen bolumenaren berri eman beharko diote Arabako Foru Aldundiari. Era berean, subjektu pasiboek eragiketa bolumenean izandako aldakuntzen berri eman beharko dute, baldin aldakuntza horrek berarekin badakar zerga ordenantza honen 7. artikulua 1. idatz zatiko c) letran zehaztutako salbuespena aplikatzearen edo ez aplikatzearen aldaketa.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak xedatuko du zer kasutan aurkeztu behar diren jakinarazpenak, haien edukia eta aurkezteko epe nahiz moduak, bai eta bide telematikoz zer kasutan aurkeztu beharko diren ere.

3. Zerga ikuskaritzaren edo alten eta berriemateen formalizazioak direla-eta erroldetan datuak sartu edo haietako datuak kendu edo aldatzen direnean, administrazio ekintzat joko dira eta errolda aldatzea ekarriko dute. Matrikulan egiten den aldaketa batek errolda bateko daturen bat ukitzen badu, lehenbizi ildo bereko aldaketa egin beharko da datu horretan, nahitaez.

4. Zerga hau autolikidazio bidez eskatu ahal izango da; hala bada, arau bidez ezarriko da nola.

## **12. artikulua**

1. Udalari dagozkio zerga hau kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko ahalmenak, bai borondatezko aldian, bai premiamendu bidean.

2. Udalaren aginpidea izango da, halaber, errolda jendaurrean jartzea, errekursoak eta erreklamazioak ebatzea, zerga kobratzea, salbuespenak eta hobariak ezartzea, eta, azkenik, zerga honekin lotutakoetan zergadunari laguntza eta informazioa ematea.

3. Salbuespenak eta hobariak emateko edo ez emateko, gainera, aurretik foru aldundiak txosten teknikoa egin behar du, eta ondoren, emandako ebazpenaren berri ere eman beharko zaio.

## **13. artikulua**

Jarduerak kalifikatzeko eta kuotak ezartzeko egintzen aurkako errekursoei eta erreklamazioei zergen foru arau orokorreko 229 - 246 bitarteko artikuluetan xedatzen dena aplikatuko zaie. Berraztertze errekursoak ebazteko eskumena Arabako Foru Aldundiak dauka. Erreklamazio horiek aurkezteak ez du egintzen betearazpena geldiaraziko.

## **14. artikulua**

1. Udal bakoitzaren matrikula Arabako Foru Aldundiak prestatuko du, eta ondoren haiei bidaliko.

2. Foru aldundiak egindako matrikula jasotakoan, jendaurrean jarriko da hamabost egunez, eragindako zergadunek aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

## **15. artikulua**

Jendaurrean jartzeko epea amaitu eta erreklamazioak ebatzi ondoren emaitzen ziurtagiria bidaliko zaio Arabako Foru Aldundiari, onar dezan.

### Azken xedapena

Zerga ordenantza hau, bai eta bere eranskina ere, 2017ko ekainaren 23an onartu ziren behin betiko, eta ALHAOn argitaratzen den egunean sartuko da indarrean, eta indarrean iraungo du harik eta espresuki aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

### Eranskina

Lehenengo araua.

Zerga kuota (udalaren gutxienekoa) kalkulatzeko zerga gai diren jardueri zergaren tarifak, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 23ko 573/1991 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onartu eta indarrean daudenak, aplikatuko zaizkie.

Bigarren araua.

Bat etorri uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arauak 9.2 artikuluan xedatutakoarekin, udalerrri honetan egindako jarduera guztiengatik jarduera ekonomikoen gaineko zergako tarifako kuota txikiak handitu egingo dira 1 koefizientea aplikatuz.

Hirugarren araua.

Bat etorri uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arauak 10. artikuluan xedatutakoarekin, honela zehazten da udalerrri honetan aplika daitekeen jarduera ekonomikoen gaineko zergaren indize eskala:

- Udalerriko kale guztiak zerga kategoria berekoak dira.
- Udalerrri honetan egindako jarduera guztietarako, zerga honen tarifaren gutxieneko kuotak 0,5 indizea aplikatuz handituko dira.

Laugarren araua.

Ordaintzeko aldia: urteko 2. seihilekoa

Gaubea, 2017ko abuztuaren 10a

*Alkate lehendakaria*

*JUAN CARLOS RAMÍREZ-ESCUDERO ISUSI*